“3 HIRIBURUAK LABORAL KUTXA BTT LIGA 2026” ARAUDIA

1. artikulua – Bultzatzaileak: *Donostiako, Gasteizko eta Bilboko* udalek, *Eusko Jaurlaritzako* Kirol Sailarekin batera, “3 HIRIBURUAK LABORAL KUTXA BTT LIGA 2026” bultzatzen dute. LABORAL KUTXA da ekitaldiaren babesle nagusia. Txapelketa osatzen duten 3 *probak Euskadiko, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Txirrindularitza Federazioek* antolatzen dituzte.

2. artikulua – Funtzionamendu orokorra: “3 HIRIBURUAK BTT LIGA 2026” 3 probaz osatutako liga formatuko txapelketa da, 3 probaz osatua. Bertan, 3 edo 4 emakumezko osatutako taldeek erreleboka arituko dira 3 orduz mendi-bizikletako zirkuitu bati itzulera gehien ematen. Denbora berean itzuli gehien osatzen dituen taldeak irabaziko du.

3. artikulua – Egutegia:

- Irailak 20, igandea: Donostia (Ulia parkea)
- Irailak 27, igandea: Gasteiz (Armentiako basoa)
- Urriak 12, astelehena: Bilbo (Avril mendia - Artxanda)

4. artikulua – Parte-hartzaileak: Proban infantil mailatik aurrerako emakumeek hartu ahal izango dute parte, federatuta egon zein ez. Federatu gabeko parte-hartzaileei eguneko asegurua bermatuko die antolakuntzak.

5. artikulua – Taldeen osaketa: Talde bakoitzak 3 eta 5 kide artean izango ditu, baina proba bakoitzean gehienez 4 txirrindularik hartuko dute parte. Proba bakoitzeko taldekideen zerrenda izen-ematea egiterakoan berretsi beharko da, lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago beranduenez. Epe hori amaitutakoan ez da aldaketarik onartuko.

⚠️ Parte-hartzea sustatzeko, behin txapelketa martxan denean, ordezko 5. txirrindulari bat sartzeko aukera egongo da, betiere aurretik beste talde batekin ibili ez bada.

6. artikulua – Aurreinskripzioa eta izen-ematea: Aurreinskripzioa formularioaren bidez egingo da, proba bakoitzaren asteko astelehen gauera arte eta inskripzioa probaren egunean bertan egingo da, izen-emateen karpan, lasterketa baino gutxienez 30 minutu lehenago.

7. artikulua – Irteera-sarea: Irteerako postuak honela erabakiko dira:

- Lehenengo proban: zozketa bidez.

-

- Bigarren eta hirugarren probetan: taldeak sailkapen orokorraren arabera antolatuko dira, eta sailkatu gabekoak zozketa bidez.

8. artikulua – Erreleboak: “Errelebo-gunea” irteera/helmugaren aurre-aurrean egongo da, bi banderaz mugatuta. Errelebo-gunean izan ezik, talde bakoitzak txirrindulari bakarra izan dezake zirkuitu barruan une bakoitzean, eta erreleboak nahi bezala egin ahal izango ditu, baldintza honekin bakarrik: gutxienez 3 kidek bira oso bat eman behar diote ibilbideari sailkatuak izateko.

⚠️ Ezingo da erreleborik egin “errelebo-gunetik” kanpo.

⚠️ Antolakuntzak “gomazko lekukoa” emango dio talde bakoitzari, eta erreleboa daraman txirrindulariak besoren batean eraman beharko du une oro.

⚠️ Erreleboa baliozkoa izateko, lekuko-aldaketan parte hartzen ari diren bi txirrindularien oinetako batek gutxienez lurra ukitu behar du eta bizikletak guztiz gelditua egon behar dira. Arau hau ez betetzeak minutu 1eko zigorra ekarriko du lehenengo bi aldietan, eta probatik kanporatzea hirugarrenean.

⚠️ Behin erreleboa daraman txirrindulariak errelebo-gunea utzita, ezingo du atzera egin, eta bira osoa osatu ondoren bakarrik eman ahal izango du berriro erreleboa.

9. artikulua – Gune teknikoa: Gune teknikoa eta errelebo-gunea leku berean egongo dira. Bertan, hornidurak eta konponketak egin daitezke, betiere gainerako taldeen igarotzea eta erreleboak oztopatzen ez badira. Gune honetan, segurtasuna hobetzeko, antolakuntzak errei bikoitza jar dezake: bat erreleboa emateko eta bestea gelditu gabe igarotzeko.

10. artikulua – Ibilbidea: Proba bakoitzaren ibilbideak 2,5 eta 3 km arteko luzera izango du. Zinta bidez eta/edo banderatxoez seinalatuta egongo da.

11. artikulua – Proba bakoitzeko sailkapena: Taldekako sailkapen bat ezarriko da, emandako bira kopuruaren eta horiek egiteko erabilitako denboraren arabera.

⚠️ Behin lasterketako 3 orduak igarotzen direnean, ezingo da itzuli berririk hasi, bidean dagoena amaitu baizik. Txirrindularien azken itzuli hori amaitzeko gehienezko denbora 20 minutukoa izango da.

12. artikulua – Sailkapen orokorra: Proba bakoitzean lortutako postu bakoitzari puntu kopuru bat dagokio, sailkapen orokorra zehazteko. Puntuak honela banatuko dira:

POSTUA	PUNTUAK
1º	250
2º	240
3º	230
4º	220
5º	210
6º	200
7º	190
8º	180
9º	170
10º	160
11º	150
12º	140

13º	130
14º	120
15º	110
16º	100
17º	90
18º	80
19º	70
20º	60
21º	50
22º	40
23º	30
24º	20
25º	10

13. artikulua – Sariak: Proba bakoitzeko lehenengo hiru talde sailkatuek eta sailkapen orokorreko lehen hiru taldeek garaikurra jasoko dute kide bakoitzeko. Garaikurrak sari-banaketaren ekitaldi ofizialean emango dira.

⚠️ Ezinbestekoa izango da kide guztiek podiumera taldearen txirrindularitza-arroparekin igotzea garaikurra jasotzeko.

14. artikulua – Liderren maillot-ak: Proba bakoitzeko sari-banaketan maillot bat emango zaie sailkapen orokorreko talde liderreko kide guztiei. Maillot hori hurrengo lasterketan eraman beharko da. Taldeak baimena izango du aurrealdeko eremu librean taldearen izena inprimatzeko.

15. artikulua – Plakak eta dortsalak: Parte hartzen den lehen proban, bizikletarako plaka bat eta bizkarrerako dortsal bat emango zaio kide bakoitzari. Material hori ondo gorde beharko da, txapelketako gainerako probetan ere erabili beharko baita

⚠️ Debekatuta dago dortsalarren edo plakaren egituran zein neurrietan aldaketak egitea.

⚠️ Denboraztapen-txiparen funtzionamendua ez oztopatzeko, bizikletako plaka ahalik eta zuzenen jarri beharko da, gutxieneko okurduraz eta aurrealdetik osorik ikusteko moduan.

16. artikulua – Bizikletak eta ekipamendua: Kaskoa erabiltzea nahitaezkoa izango da. Mendi-bizikletak (BTT) bakarrik erabili ahal izango dira, Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuna (UCI) erakundearen egungo araudien araberako konfigurazioarekin.

⚠️ Bizikletan konpondu ezin den matxura bat izaten duen txirrindulariak taldekide baten bizikleta erabili ahal izango du, betiere bere bizikleta-plaka erabiltzen badu eta taldekidearena kentzen badu erabiltzen duen bakoitzean.

17. artikulua – Aurreratzeak eta errespetua: Lasterketan zehar gainerako parte-hartzaileak errespetatu behar dira. Aurreratzeak egiterakoan aldez aurretik pasatzeko lekua eskatzea gomendatzen da. Txirrindulari azkarrago batek pasatzeko baimena eskatzen badu, aurreratzea erraztu beharko da ahal den neurrian.

18. artikulua – Ordutegiak: Ezohiko egoerarik gertatu ezean, hauek izango dira 3 proben ordutegiak:

8:00: Izen-emateen hasiera

09:15: Taldeen bilera

09:30: Izen-emateen amaiera

10:00: Lasterketaren irteera

13:00: Lasterketaren amaiera

13:20: Helmugaratzeko denbora gehigarriaren amaiera

13:30: Sari-banaketa

19. artikulua – Araudi aldaketak: Antolakuntzak eskubidea du araudi hau aldatzeko, aurreikusi gabeko egoeretara egokitzeko, esperientzia faltagatik jaso gabeko alderdiak zehazteko, txirrindularien segurtasuna bermatzeko edo lehiaketaren garbitasuna eta kirol-tasuna babesteko.

Aldaketa horiek txirrindularien arteko berdintasuna bermatzen duten eta, behin lehiaketa hasita, probaren emaitza aldatzen ez duten doikuntzak bakarrik onartuko dira.

20. artikulua – Gatazkak eta zigorrak: Antolakuntza-batzordearen erantzuna behar duten egoera guztiak *epaile-batzordeak* ebatziko ditu, ahal den neurrian Txirrindularitza Kirolaren Antolaketa Orokorraren araudian eta UCIren BTT Proben IV. tituluan oinarrituta.

Araudia 2026ko irailaren 15ean aldatu da.